

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

*Akats zuzenketa oposizio-lehiaketa bidez euskarako 2 irakasle/normalizatzaile plaza karrerako funtzionario gisa betetzeko eta lan poltsa sortzeko deialdiaren oinarrietan.*

2025eko maiatzaren 30ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (101. zk.) euskarako 2 irakasle/normalizatzaile plaza betetzeko eta lan-poltsa bat sortzeko deialdiaren oinarriak argitaratu ziren. Deialdiaren oinarrietan akats bat antzeman denez, 2026ko martxoaren 6an sinatutako ebazpen bidez,

EBATZI DA

*Lehena.* Akats zuzenketa hau egitea:

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 76.5 artikuluan honako hau xedatzen duenez: Sailkapen-taldeko lanpostuetan eta unibertsitate-gradua edo titulu baliokidea duten pertsonen betetzen dituzten lan-kontratuko enpleguetan, probaldia sei hilabetekoa izango da, gehienez; gainerako sailkapen-taldeetan, berriz, gutxienez hiru hilabetekoa. Nolanahi ere, lan-kontratuko enpleguei aplikatzeko probaldia bateragarria izango da lan-alorreko legediak aurreikusitakoarekin. Honako zuzenketa egiten da:

Hamaikagarren oinarrian:

– *Hau esaten duen tokian:*

Praktikaldia Eibarko Udal Euskaltegian egingo da, 12 hilabeteko benetako zerbitzu aldian, kontuan izan barik aldi baterako ezintasunaldiak, ordaindu gabeko baimenak edo eszedentziak.

– *Honako hau esan behar du:*

Praktikaldia Eibarko Udal Euskaltegian egingo da, 6 hilabeteko benetako zerbitzu aldian, kontuan izan barik aldi baterako ezintasunaldiak, ordaindu gabeko baimenak edo eszedentziak.

*Bigarrena.* Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Eibarko Udalaren web orrian argitaratzea.

*Hirugarrena.* Sindikatuei jakinaraztea.

Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, horren aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eibarko Udaleko Alkatezari, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo presuntziozko ezespina gertatu arte. Nolanahi ere, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Eibar, 2026ko martxoaren 6a.—Jon Iraola Iriondo, alkatea.  
(1637)

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

*Corrección de errores en las bases de la convocatoria para la cobertura de 2 plazas de profesor-a/normalizador-a de euskera como personal funcionario de carrera por concurso-oposición y la creación de una bolsa de trabajo.*

El 30 de mayo de 2025 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa (n.º 101) se publicaron las bases de la convocatoria para la cobertura de 2 plazas de profesor-a normalizador-a de euskera y la creación de una bolsa de trabajo. Habiéndose observado un error en las bases de la convocatoria, por resolución de alcaldía de 6 de marzo de 2026,

SE HA RESUELTO

*Primero.* Realizar la siguiente corrección de error:

Dado que en el artículo 76.5 de la ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco dispone lo siguiente: En los puestos de trabajo del grupo de clasificación A y en los empleos laborales cubiertos por personas en posesión del título de grado universitario o equivalente, el período de prueba tendrá una duración máxima de seis meses, y en los demás grupos de clasificación tendrá una duración mínima de tres meses. En todo caso, el período de prueba aplicable a los empleos laborales deberá ser compatible con lo previsto en la legislación laboral. Se procede a la siguiente corrección:

En la base decimoprimerá:

– *Donde dice:*

El período de prácticas se desarrollará en el Euskaltegi Municipal de Eibar durante un período de 12 meses de servicios efectivos, sin tomarse en cuenta los periodos de IT, permisos no retribuidos o excedencias.

– *Debe decir:*

El período de prácticas se desarrollará en el Euskaltegi Municipal de Eibar durante un período de 6 meses de servicios efectivos, sin tomarse en cuenta los periodos de IT, permisos no retribuidos o excedencias.

*Segundo.* Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento de Eibar.

*Tercero.* Notificar a los sindicatos.

Contra la presente resolución, se podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Alcaldía del Ayuntamiento de Eibar, en el plazo de un mes a contar a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Eibar, a 6 de marzo de 2026.—El alcalde, Jon Iraola Iriondo.  
(1637)